

HISTORIA TRISTE BAT

Zugastiri Errukarria

Jarraiko Bi

J. San Martin

Joan dan egunean zuk idatzia irakurri ondoren, erantzun bat ematea nahi ta nabiezkoa iruditzen zaigu. Ez dezu noski guk antzerkia gaizki edo ondo egin genduala esaten, baizik erabat antzerki gaiarekin sartzen zera. Orrela bada guk ere zer-baiten esan beharra ba degula ustean, bijoja gure erantzuna.

Batit bat, ez dezu antzerkia ulertu. Antzerkiaren mamia ez da darman sozial kritika. Beste bide bat da erakutsi nahi izandua egileak, ori da gizonak nahi ta nabiez ilusioa bat behar duala bizi al izateko, bere burrukak, ondoren batengaitik izan behar duela bestela bizitzeak ez duela deusik baliu. Zertarako bizitza onetako sufrimendu guziak, gerorako itxaropenik ez, eta emengo bizitzan ilusorik ez baldin bada?

Inguruko sozial kritika ez du alperrikakoa noski, garrantzituena ez izan arren, denok dakigu langilearen bizimodoa nolakoa dan ez degu usten «omen» dala esan ditekanean.



Apustu egiten ziozun egileari, la-reun pestagaitik ezetz kartzelero bat arkitu zianuro pastilla bat ekarriko duanik. Eta lau milloi ba lira? Ze erantzungo zenuke? Egileak adierazi nahi izandu zuen diruagaitik kristau izeneko bat ere errex aldatzen dala. Orrekin diozu, erreallitate behar dala antzerkian, ez gaude akort, eta ez zerori ere, lenago bai diozu, nolaz kabaret batean nola alako argazki batzuek azaldu (ez gurentin jarri, egin zan garaiari, gure dekorazio eran nun sarturik ez zago-lako), ain itxura txarra eginaz. Zer nahi dezu arkitu orrelako leku batean?

Esango duzu, noski ia beharrezkoa zan kabaret bat, azaltzea? Ez noski, eleiza atari bat ere berdin izango zan egilearen iritzian.

«Literatura de letrina» diozu ez dago galzki, zer da orduan gaur eguneko bizitza? Zer dertzikiozu orduan gaur eguneko zenbait nagusizaz, goizian jauntzeria joan eta ordu bete ondoren bere olan, langillea nundik geiago zapaldu ba dabil? Erarik nazkagarrienean diru eginaz eta gero egun guzian eleizan sartuta egoteko arpegia dutenezaz?

Ziur gaude gauz auek guziak erdal antzerki batean ikusi izan ba lira, egi galantak dirala esango zutela guziak, euskeraz ordea ez, euskeraz badirudi pimplipaxuri buruz aritu behar dugula beti, edo bestela Peru ta Mariyatzaz. 3-R tzaz ez dago zer esanik.

Apaitz bat era onetako antzerkiak idaztera jarri? Eta zergatik apaitz batek egia ez esan? Guri gauz bat iruditu zaigu tamalgaria ori beste apaitz batek esatea. Antzerkiz kanpora, benetako apaizatzaz daukagu Xalbador, eta antzerkiak gure sinesmena sendotu du. Gu tarteen gaudenak, eta sinisteko su baten behar haundia dugunok, zu bezela, apaitz batetzaz esandakoak, ezin ontzat hartu.

Penagarria da idazle batentzat, aspaldi dalarik gogaiturik ez ez idazteari emana dala esan bearra; penagarria kideko idazle batean sufrimendu berdina somatzea; penagarria benetan, borondate onerazi iritzi baten bidetik jokaturik, bere alorrera otsoen gisa dazoenekin aurre-aurre arkitu bearra. Au da Xalbador Garmendia adiskideari gertatua, sari ordalfiz. Bere teatrua konprentitu ez dutenak eta konprentitu nal ez izan dutenak jarri duten trantzea.

Ez nihoa itoreen kontra. Bazlik, gizon baten alde nihoa.

Aspaldiko zorra det Garmendiarkein. Berandu bada ere, lenbikoak jarri dedan errozalok euski nau oratidano. Baina noiz bait oratidano bear non «Historia triste bat»-en egileari, kartaz eskaini nilona.

«Historia triste bat» baino len irakurri nituen zenbait iritzi bere aurkakoak, baina antzerkia eskuratu nuanean, bestelako iritzi izan zan nerea. Ta egon ezinik bulatza ninduan egileari nere iritzi izatzeria. Agertu narrik denok egiazala bere uxatzaile Ondarruan juraduko izan ziranak, nik baino lenago goraildu bazuten ere—. Ta orain zeitz oroitzen ez banalz ere orduan esaten nionarekin, ondoren jartzen ditudan erako itzak ziran idaskiz jarri nistxonak.

«Historia triste bat» lan ausarta da. Oso ausarta. Zer esan asko emango duana, baina gure literatura-ren onerako, ur-geldiak bat-batean mugituko zituzana, aspaldi gelatik zeuden tokitik hibe berrien korrontetara irikitzeko.

Lan oso bizia da. Bear bada, antzerki aldetik, molde gogorregian eritua. Baina, gaila bisiki ona. Gaurko mensaie bat baino geiago da momentu historiko on lotoan dan egitura, eta, literaturari, egileea bere mendeari orrela finkatzea ez da guszarik errezena. Neorrealista da, eta neo-realistata dan bidetik ere ezin genseake esakuta bere lokarri guziak agiarekin jurgatzera. Gutzia gailera, oraindik gure olerkarien artean lirika erromantikaz kardea krabaila adierazten dutenean.

Dostoiowski-ren nobeletako per-

tsona ta gertaerak ere nekez gerta ditzazke toki ballean orrenbeste kideki, Buero Vallejo-ren antzerkiakoz hertz, gutziago. Baina norik ukatsen ditu bata nobelagintzan eta bestea teatruagintzan? Ez inungo literaturariak.

Garmendiak bearrezkoa zuan orrenbeste perionaje olesko alkarri lotu bearra, berak sortu nai zuan erako antzerkia lortuko bazuan. An agertzen diranetako edozein bezelakoak nun-nai arkitu genezazke gure eririk agetazeko ere. Gertari naskagarriak; bai. Baina, gertariak. Ta, emen.

Ez bildurtu irakurle, gauza olek orren gordin esaten ditudalako. Ez det gosetzen gauza naskagarriekin. Ez dituz gogoko gaurko zenbait idaskera. Zuzunegi-ren bi nobela irakurtzen asi nintzan, baina bata ere ezin izan nuan bukatu, gaitik asi ta beza ingulgarrikeria besterik ezatetako. Baina, Garmendia-rena beste gauza bat da. Gertari naskagarriak bide dira beza lanean atzekaldean daraman moralerako; bide dira gizaite basati onetan bi-oniean dabilzaten zenbait prixti salafetako. Ta, ezker ta eskul gailera.

Antzerki orretatik, zentzu plizak bat dutenak, probetu ona besterik ezin dute atera.

Ori ez dala apaitz baten burubidea? Beste tanto bat du bere alde Garmendiak, exer baino len gizona izatean. Gizona! Jakituna edo heroea izatea baino askozaz ere nekezagaia dana, Gizona!

Gizona dalako defenditzen ditu umillak; gizona dalako atzetan da menderatzailean salafetalle. Berea da gizon baten gizonaren defentsa. Ta, seguru nago, dagoan lekuan dagoala benetako gizona denez, bere ministerioak ere ondo beteko dituala, Kristo gizonkiago konprentitzen dualako.

Bai Salbador, nere asmaoa lenean dago. Zure erakuspide ederra arturik, defenditdu egin nai zallut, otsoen gisa atera diran gizonengandik, gizonagoa zeralako. Nere laguntzak ere ez dira asko balloko, baina nere txirotasunean ez dut beste sinienik. Ez etsi; bear-tsuaik bear zallutze.

Goazen Arantzazura

DAGONILLAREN 28-an

Badatorikigu berriro askori, gazteak geraldak, gustatzen zaigun gau oietako bat. Bajino oitua ez gauden beste kutsu barekoa, beste era batera igarobear dana, seriotasunez beterikoa. Urteroko, ARANTZAZURAKO GAU IGOERA. Oso-osorik gurea dan gau zoragarria. Guretzako bakarrik asmatutakoa. Urtean bakarria, eta gazteak bene-benetan ondo aprobetxatu eta zumoi guztia joan bear dioguna.

Ez degu joan bear juergarako edo ikubullian pasatzeko asmoekin. Era ontan dena desaprobatuko genduke. Gau onen berezitasunak beste postura bat eskatzen du.

Gau ontan gauza asko esango zaizkigu: garratzak, mingarriak batzuk, Bai! gazteak gera eta baditugu gure akutsak, usuneak, uraketskeri eta zorakeriak ugari. Orregatik kritikatzen zaigu. Ez gera konprentuak. Zoro osoak bezela jotzen gaituzte zenbait. Dena esungo zaigu, baino erresomianik gabe.

Beste aldetik berriz, ez da dena zabarkeria gure artean. Baditugu alderdi onak ere, eta txarrak baino geiago. Auek ere esungo zaizkigu. Gazteak gera eta gazte bezela, trebeak, biotz onekoak, Kristoren adiskide eta Eleizaren seme zintzo eta leial izateko prest gaudenak. Emendik erantzukizun aundiok datorzikigu: «Iurraren gatz eta munduaren argi» izatea; «Kristoren aitorea» izatea; «Gure bizitza Ebanjelioaren aginduen eran antolatzeta»... Ori dana al lezakegu.

Gau ontan denok joaten gera kezkatu, zenbaiten bila. Ideal baten bila. Gure bizieradertu eta gure bizitzari sentidu geiago damakion zer-baiten bila. Ez gaude konforme gure bizikerkin. Zerbitu geiago nai degu: aundiagoa, sakonagoa, baliotsuagoa: gure biotza bezelakoa.

GAZTE!! Arantzazu zai daukazu. GOAZEN. Joaten bazera, eta nik baino obeto dakizu zertara joan bear dezan, badakit seriotasun guziarekin jokatuko dezula. Lagun!! an ikusiko gera.

E-tar PELLO J.

JOSE ANTONIO BARRDIARAN MASKURRETAN AITUA (Prebostea-Castilla) Ego. 1. Inel. 16.70. BODITIA



Eraria epela dagola?

FAGOR'ek oztuko du berela

Liburu Berriak

Lazkao'ko beneditarrak bederatzigarren eta smatgarren zenbakiz jotako beren JAUNAREN DEIA bildu digute. 50 Salmo dakarazki oraingo ale onek, beren musika ta guzi. Itzak berisotan emanak eta eresia atel dagokiena banan-banan.

Gure Liturgi, beneditarreri eskerrak eman bearrean arkituko da onenbeste lan eder argitara dituztelarik. Beste sail batzuetan nai genduke orrelako ugarietasuna ta ankera.

Juan Anjel Etxeberria'k bear lana jarratituz, nolobaina euskeraben batzuek ori banatuetan bialtzen ditu. Oraingoan Kikero-ren ZARTZAROA artu du euskeratzeko ta oi bezela txukun eta garbi ematen du gure izkeran Erroma'ko Izarlararen atal bat.

Onelako langile asko bear dituz gure lakerak. Betor gure gaztedia bide ontatik jokatuz eta bere irakifican jakintza ardatza artuz.

GINEBRA SECA

BESTE ETIKETA BELTZ BAT.

Bobadilla

Bobadilla

103

Jerez

EUN ETA IRU